

Asisko gutuna

2011ko azaroa. 1. printzipioa. Eguneroko bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 37. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Beren eguneroko bizitzan frantziskotarren espiritualitatea, oinarritzko lau printzipioen bidez, ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare irekia da Asis Sarea.

Hil honetako Gutunaz, gogoeta lehen printzipioari buruz egingo dugu: “Egunero, Jainkoarekiko harreman pertsonala landu”.

Asis Sareak printzipio horri aplikatzeko irizpide zehatz bat partekatzen du: “egunero une bat gorde otoitzerako”, bertan tokia eman ez Ebanjelioa modu hartzailean irakurtzeari, isiltasunari, esker emateari, geure errealitatea bere poz eta zailtasunekin adierazteari.

Gogoetarako gaia

Etengabe otoitzean iraun

Daramagun bizimoduarekin, erraz joaten zaizkigu egunak, asteak eta are hilabeteak betarik benetan hartu gabe otoitz egiteko, une bat Jainkoari emateko. Egunean egunekoak badu bere afana, eta geldirik jarrita isiltasunari tokia ematen ez badiogu, lausotuz doa Jainkoa ideia batean, axolarik ez duen zerbaitetan. Bizi gaitezke Jainkorik gabe, eta are pentsa dezakegu errazagoa dela horrela, bizitza historia konplikatu batean nahasi gabe, bizitzea. Eta zalantzak agertzen hasten dira, Jainkoa urrutian sumatzen da, irits gaitezke dena erlatibizatzen, eta gure iturria pixkanaka agortuta gelditzen da.

Isiltasun une bila ibiltzea, geure bihotza zain jartzea, otoitz egiten hastea da. Otoitzak, euriaren antzera, eguneroko pixka bat, isiltasunean, entzunean,

eguneroko eskerrak eman, eguneroko eskatuz ... geure barne bizitzari sostengua ematen dio.

Apalki Jainkoaren bila ibiliz, onartu egiten dugu eguneroko haren hitza.

“Erne egon”, “iraun”, “eutsi” axola handiko hitzak dira fedean. Aurpegia behin eta berriro Jainkoarengana itzultzeak hurbildu egiten gaitu dohain guztien iturrira, Jesus berberarengana. Otoitza lagungarri dugu beldurretik eta bihotz gogorkeriatik urruntzeko. Jesusen presentziari adi egonez, altxa egiten da gure bihotza.

Eguneroko otoitzak ahalbidetu egiten digu isilean erne egotea, itxaropenean irautea, Jainkoak munduan duen presentziari adi egotea. Jainkoaren aurrean otoitzean jartzeak, maitatzen eta barkatzen laguntzen digun bide batera hurbiltzen gaitu.

Ebanjelioko pasartea: Flp 4,4-7

Poz zaitzete Jaunarengan beti! Berriro diotsuet, poz zaitzete! Ikus dezala jende guztiak zein bihozbera zareten. Hurbil da Jauna!

Ez eduki ezerekin kezkarik, baizik eta, gorabehera guztietan, agertu Jainkoari zeuen eskabideak,

otoitz eta erregu eginez eta eskerrak eman. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiago den Jainkoaren bakeak zainduko ditu zuen gogobihotzak Kristo Jesusen bidez.

Frantziskotar espiritualitatea: Otoitzean atsedean hartuz

Otoitzean atsedean hartzea dugu beste ikasi beharreko bat. Gizarte hain lehiakor eta presazko honetan, hainbeste gauzatar iritsi ezinean gabiltzanean, otoitzean atsedean hartzea izan dakiguke presazkoa, horrek arraro dirudien arren.

Asisko Frantziskoren biografo batek honela dio: "Buru eta bihotz hain zegoen erabat Jaunagandik espero zuen gauza bakarrera zuzendua, non otoitz egiten zuen norbait baino areago, oso-osorik otoitz bihurtua baitzegoen" (2 Zel 95). Berea ez zen soilik otoitz egitea, otoitz bihurtutako gizon izatea baizik; bere egunak eta gauak, bere izate osoa, otoitz, adorazio, esker on, atsedean hartze bihurtu zen.

Zergatik bihur daiteke otoitza atsedean? Atsedetik handiena eta hoberena orduan hartzen dugulako, onartuak, konprenituak, irmotuak, barrutik berrirakurriak... sentitzen garenean. Eta Frantzisko irmotua eta sendotua sentitzen zen Jainko Jaun Gorengoarengan, on guztia denarengan. Otoitz egitea, askok pentsa dezaketenetik at, oasia eta indarra da, ur biziaren iturria.

Otoitza: Otoitzean atsedean hartuz

Nekaturik nator, Jauna, nekaturik
bizitzaz eta bere borrokaz,
otoitzaz eta bere agoniaz,
neure bihotzaz, beti
hain hauskorra, inozoa, gogorra denaz.
Zugan dut atsedean, ene On guztia.

Nekaturik nator, Jauna, nekaturik,
neure beldurren mehatxupear nagoenean,
hurkoaren aurrean hesiak altxatzean,
zure aurrera neuregan bildua natorrenean.
Zu zara neure atsedean, ene Jainko.

Nekaturik nator, Jauna, nekaturik,
batzuetan inolako arrazoirik gabe,
neure hutsa narran erakarritz,
neure begiak Zugan josiak, Jesus Jauna,

ene maitea, ene baitako irrika,
ene bakea.

Utz iezadazu zeure bihotzean atsedean hartzen,
bil nazazu zeure besoaz,
emadazu zeure kopatik edaten,
nekaturik nator-eta, ene
Jauna, nekaturik.
Zu zara nire Harkaitza
eta ur bizia,
neure gozoa eta eztena,
neure itxaropena eta
erreinua,
ene salbatzailea zaren
Jainkoa, ene Aita.

(Garrido, J. *Ni santo ni mediocre*)

Gutuneko azken hitzak

"Egia bada bizitza, funtsezko denean, ez dela betea isiltasunik gabe, benetan galdetu beharko nioke neure buruari zenbat isiltasun dagoen neure bizitzan".

2011ko abenduako eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduako erreferentzia guztiak:

1 Mt 7,21.24-27	8 Lk 1,26-38	15 Lk 7,24-30	22 Lk 1,46-56	29 Lk 2,22-35
2 Mt 9,27-31	9 Mt 11,16-19	16 Jn 5,33-36	23 Lk 1,57-66	30 Lk 2,22-40
3 Mt 9,35.10,1.6-8	10 Mt 17,10-13	17 Mt 1,1-17	24 Lk 1,67-79	31 Jn 1,1-18
4 Mk 1,1-8	11 Jn 1,6-8.19-28	18 Lk 1,26-38	25 Jn 1,1-18	
5 Lk 5, 17-26	12 Mt 21,23-27	19 Lk 1,5-25	26 Mt 10,17-22	
6 Mt 18,12-14	13 Mt 21,28-32	20 Lk 1,26-38	27 Jn 20,2-8	
7 Mt 11,28-30	14 Lk 7,19-23	21 Lk 1,39-45	28 Mt 2,13-18	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko azaroa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 37. zenbakia

Egunero Jainkoarekin harreman pertsonala lantzea da gure sareko lehen printzipioa. Jainkoarekiko harreman horren ildotik utz diezaiokegu gure bihotzari aldatzen, horrela gure bizitza ere aldatuko delarik. Otoitza da mediaziorik onenetako bat Jainkoarekin harreman hori edukitzeko, nahiz eta otoitzean irautea gauzarik zailena ere izan daitekeen Jainkoaren bila gabiltzanean.

Otoitzean diraugularik

Otoitz bizitza egiten hastea nahiko erraza izaten da. Lehen otoitz-uneak atseginak izaten dira eskuarki, eta berorietan ondo sentitzen gara Jainkoaren aurrean.

Baina lehen garrak igarotzean eta otoitza monotono eta ez atsegin bihurtzen denean, bizitzako eginkizunak arrastan eramaten gaituzte eta albora uzten dugu Jainkoarekin aurkitze hori.

Gai hau lantzeko geure buruari zera galdetuz hasiko gara: nolakoa izan da nire otoitz bizitza orain arte.

Bilatzen ditut isiluneak nire bizitzan? Aurkitu dut otoitza Jainkoarekin topo egite gisa? Nolakoa da Jainkoarekin topo egite hori? Edo, oso okupatua nabil eta Jainkoa ez da jada Norbait hurbila, berarekin maitasun-harremana mantendu nahi izateko?

Jainkoa gure zain dago maitasun-harreman horretarako; ze aitzakia jartzen dizkiot ez hurbiltzeko? Askok eta era askotakoak izan daitezke aitzakiak: denbora, aspertzea, distrakzioak, eta abar. Zeintzuk dira une honetan jartzen ditudanak?

Galdera horiei erantzuten saiatu ondoren, ahalegin zaitetz otoitza egiten hasten edo berreskuratzen. Otoitz eginez ikasten da otoitz egiten, eta hil honetan bederenik egunero egingo dugu.

Hasteko, isiltasuna eta topaketa errazten duten toki bat bilatuko dugu, Jainkoaren aurrean gaudeneko kontzientzia hartuz.

Gero bi erataro egin dezakegu otoitz: (1) Hitzaren bidez; (2) bizitzaren bidez.

Hitzaren bidezko otoitza: aukeratu Bibliako testu bat eta utzi guregan oihartzun izan dezan, ondoriorik atera nahi gabe, lanbroari bezala erortzen eta gure bihotza aldatzen utziz.

Bizitzaren bidezko otoitza: bizitza otoitzaldira eraman, Jainkoak berak bihotz aldatu horrekin bizitzara bihur gaitzan.

Otoitzean irauenez, Espirituak gidaturik Jainkoarekin harreman maitetsuan egonez, aldatu egingo da geure

besteenganako begirada eta gure munduan bizitzeko eta egoteko modua.

“Hurbil da Jauna”

Testuan San Paulok esaten digu nola egin behar dugun otoitz: Jainkoaren aurrean gure desirak aurkeztuz, eske eta erregu eginez, eskerrak ematea ahaztu gabe. Horrelakoa da gure otoitza? Edo eskezko otoitza bakarrik egiten dugu, zerbait gaizki doakigunean? Edo gure ustez eske-otoitzak ez du ez bururik eta ez hankarik?

Jesusek berak esaten digu, konfiantzaz eta apaltasunez Aitari otoitz egiteko.

Jainkoarekin nolabaiteko harremanean jartzea otoitza da, berarekin intimitatean egotea, berarekin aurkitzea.

Jainkoarekin aurkitzeak poza eta bakea emango dizkigu fruitutzat, filipoarrei gutunak erakusten duenez. Ez edozein poz eta bake, Jesus piztuarekin aurkitzeak duen poza eta bakea baizik.

Eta hau barrutik ematen zaigu, norberaren bihotzean, eta ezingo digu inork kendu; baina guri otoitzaren dohaina eskertzea gelditzen zaigu soilik.

Frantziskotar espiritualitatea

Frantzisko imitatuko dugu, ahal dugun neurrian, geure burua Jaunak onartua, konprenitua eta besarkatua izaten utziz, Berarengan atsedean hartzeko eta Hura gure bizitza katramilatuan bake- eta sosegu-iturri gisa aurkitzeko.

Ikas dezagun Frantziskogandik gure bizitza otoitz egiten, egunero isilune bat eta Kristorekin intimitatean egotea bilatuz, berak Aitarengana eraman gaitzan.

Otoitzean atsedean hartuz

Erabil ezazu gutuneko otoitza, egun hauetan zeure bihur dezazun, Jaunagan atsedean hartzen ikasiz.